

1998ko URRIAREN 16ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko urriaren hamaseiean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz Zinegotziek ez dira agertu, eta ez dute inolako arrazoirik eman, nahiz eta jakinean egon; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTEN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- INSALUS, U-2 SEKTOREAREN LAGUNTZAZKO ARAUEN ALDAKETAREN BEHIN-BEHINEKO ONARPENA

Udal honek, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko abuztuaren seiean eginiko Bilkura Nagusian, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektorako Aldaketari lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 1997ko Abuztuaren 21eko, 157 zenbakidun Aldizkari Ofizialean, eta 1997ko Abuztuaren 26ko Egin egunkarian, hilabeteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

ERABAKIA

- 1.- Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektoreko Aldaketari, behin-behineko onarpena ematea.
- 2.- Aldaketari buruzko espedientea, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, behinbetiko onarpena emateko eskatuaz.

Insalus, U-2 Sektorearen Laguntzazko Arauen Aldaketaren Behin Behineko Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren “quorum”arekin, aho batez onartua izan da.

3.- INSALUS-EKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA, ETA ALKATEARI AHALMENAK EMATEA

Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektoreko Aldaketari behin-behineko onarpena eman ondoren, Sektore horretako, Insalus S.A. enpresak, legez egin beharreko zesioen hitzarmenaren berri eman du Alkateak, eta honela dio:

Lizartzan, 1998ko Urriarenan.

BILDURIK

ALDE BATETIK: JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE jauna, LIZARTZAKO UDALEKO Alkate-Lehendakaria eta 15.915.139 zk. NAN duena.

BESTETIK: FRANCISCO JAVIER MALCORRA ARSUAGA jauna, adinez nagusia, 15.926.975 zk. NAN duena eta jakinarazpen-ondorioetarako ondoko helbidea duena: Pablo Gorosabel, 4 – 1., TOLOSA.

DIHARDUTE

Jose Antonio Mintegi Arrate jaunak, LIZARTZAKO UDALEKO Alkate-Lehendakari gisa, 1998ko Urriaren 16ko osoko bilkuran emandako berariazko ahalmenen indarrez.

Francisco Javier Malcorra Arsuaga jaunak, AGUA DE INSALUS, Saren ordezkapen-lanetan, 1993ko martxoaren 25ean Tolosako notario den Jose Manuel Domingo Serrano jaunarren aurrean egindako ahalorde-eskituraren bidez egiaztatu bezala.

Bi aldeek, zuzenbidean beharrezkoa den guztirako betebeharrak beren gain hartzeko ahalmena aitortzen diote elkarri eta ondoko aurrekariak azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

LEHENA.- AGUA DE INSALUS, SA, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 1988ko ekainaren 14an behin-betiko onartutako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetan aurreikusitako U.2 sektorearen mugaketan barne hartutako lur guztien jabea da.

Lur horiek gaur egun duten hirigintza-sailkapena Lurzoru Urbanizagarriaren da eta industria-kalifikazioa dute. Gainera, arestian aipatutako plangintza orokorreko dokumentuaren barruan, Agua de Insalus, S.A.k gaur egun lurren inguruetan dituen instalazioen zabalkuntza ahalbidetzea aurreikusita dago.

BIGARRENA.- Udal-plangintzan indarrean dauden zehaztapenen arabera lur horiek Lurzoru Urbanizagarri gisa kalifikatuta badaude ere, Hitzarmen hau izenpetzen duten aldeak bat datoz gaur egun afektatuta dauden lurrek, 1346/1976 Errege Dekretuaren 78. artikulua eta HDaren 21. Artikuluak aurrez finkatutako baldintzak eta eskakizunak betetzen dituztenez gero, industria-kalifikazioko lurzoru hiritarraren sailkapenarekin eraldatzeko bokazio garbia dtela adieraztean.

HIRUGARRENA.- Arestian esan bezala, adierazitako kalifikazio berri horren helburu bakarra afektatutako lurrei hasiera batean eman nahi zaien hirigintza-xedea bete dadin ahalbidetzea da. Horrela, Agua de Insalus, SAK udalerrian dituen instalazioak zabaldu ahal izango dira enpresaren eta bere jarduerari ezinbestez lotuta dauden lanpostuen bideragarritasuna eta jarraitasuna bermatzeko.

Aurreko adierazpenei jarraiki eta egindako elkarrizketen emaitza gisa, dokumentu hau sinatzen duten aldeek, behin eta berriz aipatutako lurren burutzapen eta kudeaketari lotutako elkarrekiko betebeharrak arautzeko asmoz, Hirigintza Hitzarmen hau formulatzea erabaki dute ondoko estipulazioei lotuz:

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- Hirigintza Hitzarmen honen helburua, Lizartzako Udalaren eta Agua de Insalus, Saren artean U.2 sektorearen kalifikazio berria egiteko (Eremu izena emanda) sektore horri dagozkion Arau Subsidiarioen aldaketaren zehaztapenak hitzartzea da, bai eta kudeatzea eta antolatzea ere.

BIGARRENA.- Lizartzako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin-betiko onartu arte, hitzarmen honen azalpen-zatiaren lehen atalean aipatu diren lurrak afektatuko dituen udalerriko Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko espedientearen izapideak egiteko konpromisoa hartzen du. Espediente horretan aipatutako esparruaren antolamendurako irizpideak eta helburuak barne hartuko dira, Alkatetzaren 1997ko apirilaren 25ko Dekretuaren bidez aurrerapen-fasean jarri zen eta GAO n 1997ko maiatzaren 9an argitaratu zen aldaketari buruzko dokumentuari jarraiki. Hona hemen dokumentu horren edukia, laburbilduta:

Erabilera zehatza: industria-erabilera.

- Sestra gaineko eraikigarritasun gordina	4.296 m ²
- Eraikuntzak okupatutako azalera	2.051 m ²
- Sailkapena: Lurzoru Hiritarra	
- Espazio libreen eta bideen azalera	4.669 m ²

HIRUGARRENA.- Eusko Legebiltzarraren apirilaren 20ko 11/1998 Legean xedatutakoari jarraiki, AGUA DE INSALUS, Sak aipatutako esparruari dagokion irabazizko aprobetxamenduaren lagapena egin beharko dio Lizartzako Udalari.

Horretarako, bi aldeek irabazizko aprobetxamenduaren lagapenari dagokion balioa ezartzen dute bat etorritz. Aprobetxamendu hori 5.000.000 pezetako kopuruan ezarrita geratzen da.

Agua de Insalus, Sak bere gain hartutako konpentsazio ekonomiko hori horrela ordainduko da:

- a) Aurreikusitakoaren arabera aipatutako esparruan ezarritako burutzapen-unitatea kudeatzeko garatuko den konpentsazio-proiektua onartzen den unean 2.000.000 pezeta eskudirutan ordainduta.
- b) Lizartzako Udalari, 1492 m²-ko azalera duen "Zelai Plaza" izeneko luraren doako lagapena eginda.

Gaur egun, lur hori Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dago ondoko erregistro-datuekin:

672. Liburukia; 17. Liburua; 150. Folioa; 835 zk. Finka; 1 zk. Inskripzioa.

LAUGARRENA.- Halaber, AGUA DE INSALUS, SAK gaur egun lurzoru ez-urbanizagarri gisa sailkatuta dauden ondoko finken doako lagapena erabaki du:

- 1.- Irunzizu-Bideburua izeneko gaztainadi-zatia. Mugak: iparraldean, Barrenechea baserriaren jabetzako lurak; hegoaldean, gurdibidea; ekialdean, Marco baserriaren jabetzako lurak; eta mendebaldean, Irunzizu Erreka izeneko erreka. Hogeita hamalau area eta hogeita hamabi zentiareako azalera du.
- 2.- Sallagor izeneko belardi-zatia, abarrategi-zati txiki bat duena. Basaizalde auzoan kokatuta dago eta Lizartzako hiribilduarenak diren lurekin egiten du muga lau puntu kardinaletan. Hemezortzi area eta hogeita hemeretzi zentiareako azalera du.
- 3.- Aurrekoaren auzo berean kokatutako Añi edo añegi izeneko gaztainadi, pagadi eta haritzia. Mugak: iparraldean, Lizartzako hiribilduarenak diren lurak; hegoaldean, Goicoecheaundia baserriaren eriteko lurra; eta ekialde eta mendebaldean, Aguirrebarrena baserriarenak. Hirugoeita hamazazpi area eta laurogeita lau zentiareako azalera du.
- 4.- Artech-burua izeneko belardia. Mugak: iparraldean eta mendebaldean, Artech baserriaren jabetzako lurak; hegoaldean, Maitonea baserriarenak; eta ekialdean, gurdibidea. Zazpi area eta hemeretzi zentiareako azalera du.

Erregistro datuak:

159. Liburukia; 10. Liburua; 172. Folioa; 458 zk. Finka; 8 zk. Inskripzioa.

Lur horien lagapena notario-eskritura bidez formalizatuko da. Eskritura hori hilabete bateko epean formalizatuko da Udalak arestian aipatutako konpentsazio-proiektua onartzen duenetik kontatzen hasita.

BOSGARRENA.- Lurren transmisioa dela-eta sortzen diren gastuak (notario-gastuak, erregistro-gastuak eta abar) erdibanatu egingo dira Lizartzako Udalaren eta Agua de Insalus, SAREN artean.

SEIGARRENA.- Lizartzako Udalak bere gain hartzen du afektatutako esparruaren Arau Subsidiarioen aldaketari buruzko espedientea behin-behineko onartzeko eta urbanizazio-proiektua eta beharrezkoak diren hirigintza-kudeaketarako tresnak onartzeko izapideak ahalik eta lasterren egitea ahalbidetzeko konpromisoa.

ZAZPIGARRENA.- Honako hitzarmen hau, Arau Subsidiarioen aldaketa hitzarmen honen lehen estipulazioan adierazi bezala behin-betikoko onartzearen baldintzapean geratzen da.

Aurrekoa kontuan izanda ere, Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa behin-betikoko onartzeko ebazpenak arestian hitzartutako baldintzak aldatuz gero edota hitzarmena izenpetzen duten aldeetatik kanpoko kausengatik dokumentu honen indarrez aldeek beren gain hartu dituzten betebeharretariko bat eragotzita geratuz gero, baldintza eta betebehar horiek berriz ere negoziatu ahal izango dira hitzartutako oreka berriro lortzearen.

Edozein alde Hitzarmen honen estipulazioak ez betetzeak, ahalmena emango dio beste aldeari ebazpena eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea premiatzeko.

Dokumentu hau irakurri ondoren eta adostasun gisa, izenpetzen dutenek lau aletan sinatzen dute, hasieran adierazitako hirian eta egunea.

Zesio hitzarmen hori aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

Horren arabera, eta hitzarmen hori sinatu ahal izateko, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATE, Alkate-Lehendakariari ahalmenak ematea, aho batez onartu da.

4.- UDAL ORDENANTZEN ALDAKETAK

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK TASAK EZARRI ETA ANTOLATZEKO

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

- a) Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik, hau da, **Udal Bide Publikoen Lur, Lurrazpi edo Lurgainaren Erabilera Pribatu edo Aprobetxamenduagatik**, ordaindu beharreko tasak finkatzea, horiek arautzen dituen, Ordenantza fiskala onartuz, eta halaber, zerbitzuak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik, hau da, **Ur Hornidura Zerbitzua; Udalaren Jabetzako Mahai, Aulki eta Tabladua erabiltzea, Aztinondo Udal Pilotalekua Erabiltzea eta Hilerriko Zerbitzuagatik**, exijituko diren tasak ezartzea.
- b) Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik, hau da, **Ur Hornidura Zerbitzua; Udalaren Jabetzako Mahai, Aulki eta Tabladua erabiltzea, Aztinondo Udal Pilotalekua Erabiltzea eta Hilerriko Zerbitzuagatik**, ezarrita dauden tasen Ordenantza arautzaileak aldatzea, 1. erantsitako testuan jasotakoaren arabera.

- c) Udal jabari publikoa okupatzeagatik, hau da, **Udal Bide Publikoen Lur, Lurrazpi edo Lurgainaren Erabilera Pribatu edo Aprobetxamenduagatik**, ezarrita dauden prezio publikoak kentzea, horiek arautzen dituen Ordenantza indargabetuz, eta, halaber, zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik, hau da, **Ur Hornidura Zerbitzua; Udalaren Jabetzako Mahai, Aulki eta Tabladua erabiltzea, Aztinondo Udal Pilotalekua Erabiltzea eta Hilerriko Zerbitzua**, ezarritako prezio publikoak indargabetzea.

Hori guztia, Udal Batzarrak, mila bederatziehun eta laurogeita hamazortziko urriaren hamaseiean eginiko Bilkuran hartutako Erabakiari jarraiki egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta 1999ko Urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

- 2.- 11/1989 Foru Arauan xedatutakoaren bat etorritz, behin-behineko Erabaki hau eta hari erantsitako ordenantza fiskalen testua, 30 lanegunez jarriko dira ikusgai jendaurrean Udaletxe honetako iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzaten erreklamazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari. Erakusteko epea iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

5.- AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAK

Lizartzako Udal honen 1998ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espediente onestea, 4.431.502,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoaren Kontuhartzailentza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

6.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

MANUEL IBARGUREN BOLINAGA Jaunari, Ipintza Berri Etxean, 4. Esk. an, aluminiozko leihoak jartzeko baimena.

AZTINAKO ETXABURUA izeneko lur saila, **CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA** jaunaren jabetzakoa den, AZTINA baserritik banandu eta Lizartzako Udalarari saltzeko baimena.

“El otro de los trozos en que quedaron divididos los terrenos contiguos a la casa después de segregar el citado terreno para Barreneche-Berri” izeneko lur saila, M. Francisca Balerdi Iturrioz, Maria Trinidad Arzadun Balerdi eta Maria Luisa Arzadun Balerdi Andreen jabetzakoa den, Barrenetxe baserritik banandu eta Lizartzako Udalarari saltzeko baimena.

INAXIO ZEBERIO ARTOLA Jaunari, Asura Etxeberri etxearen aurrean, masa botatzeko baimena.

JOXE MARTIN ZUBELDIA AIERBE Jaunari, Kale Nagusia 19an, Kafetegi bat eraikitzeko baimena.

M^a CRUZ OTXOTORENA HUARTE Andreari, Etxeari erretila egiteko baimena.

BENITO URDANPILETA Jaunari, Asura Baserriari erretila egiteko baimena.

NAHITAEZKO JABEGOKENTZEERAKO GIPUZKOAKO LURRALDE-EPAIMANAHIA

Nahitaezko Jabegokentzeerako Gipuzkoako Lurralde-Epaimahaiak bidalitako ofizioa jaso dugu. Bertan esan digu aipatutako auzitegian, Gaspar Barriola Irazusta, 2018/98-2, Castor Olaetxea Garaikoetxea, 2016/98-2, Jesusa Garaikoetxea Ormaetxea, 2017/98-2 zk.dunak.

GERTAKARIAK

- 1.- Udal honek obligazioa dauka bere ondasunak eta eskubideak defendatzearren beharreko legezko akzioak egikaritzeko.
- 2.- Oro har, Udalbatzari dagokion administrazioko eta legezko akzioak egikaritzea.
- 3.- Presa dagoela eta Alkate-Lehendakariari dagokio bidezko akzio administratiboak eta judizialak egikaritzea.
- 4.- Nahitaezko Jabegokentzeetarako Gipuzkoako Lurralde Epaimahaiak bidali digun epatze-zedularen arabera bederatzi eguneko epea dugu autoetan agertzeko eta bertaratzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

- 1.- Eraentza Lokalaren Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 21,1.i, 22.2.j eta 68.1 artikulua.

Aurreko guztiak kontuan izanik, hona Alkate-Lehendakariak hartutako

ERABAKIAK:

- 1.- Gaspar Barriola Irazusta, 2018/98-2, Castor Olaetxea Garaikoetxea, 2016/98-2, Jesusa Garaikoetxea Ormaetxea, 2017/98-2 administrazioarekiko auzi-helegitetan alderdi demandatu gisa bertaratzea. Helegite hori Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian ari da bideratzen.
- 2.- Abokatu-lana, JOSE LUIS BUENO IRAOLA abokatuari bidaltzea, aipatutako helegitean Udal honen interesak defenda ditzan. Abokatu hori eta ALBERTO ARENAZA ARTABE Prokuradoreaz balia daitezke, Udal honek prokuradore horiei auzitan aritzeko ahalorde orokorra eman baitie.
- 3.- Hurrengo Udalbatzan erabaki hauen berri ematea eta, bidezkoa bada, Udalbatzak erabakiak berrestea.

INSALUSKO URAK aurkeztu duen, A-5 arean kokatua dagoen enpresaren Irekiera baimena eguneratzeko eskaera ikusirik, 1961eko azaroaren 30eko Araudiko 30. Artikuluak ezartzen duen prozedimendua hasia izan dadila. Horren arabera, ERABAKI DUT:

- 1.- Udal Arkitektoak, Udalean indarrean dauden Araudiekin bat datorren, txostena luzatu dezala.
- 2.- Hori baiezkoa balitz, Erregelamenduaren arabera, prozedurak jarraitu dezala, hamar egunetako epean, Udaletxe eta Gipuzkoako Aldizkarian argitaratu, eta inguruko bizilagunei, jakineraziaz; epe hori igaro ondoren, Osasun Inspeksioa eta Udaleko Zerbitzu Teknikoei pasea izan dadila tokatzen diren txostenak luzatu ditzaten. Txosten hoiekin, Udal Batzarrari pasatzea, ospatzen den lehen bilkuran aztertu dezan. Azkenik, espedientea, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidalia izan dadila, tokatzen den txostena luzatu dezan.

3.- 2. Apartatuan ezartzen diren tramiteak beterik, kontu eman zaidala; Udaleko Arkitektoak aurkako txostena luzatzen badu ere bai.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gauko hamarrak direnean.